EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA DELA-ETA EGINDAKO ADIERAZPENA

2026KO AZAROAK 25

Gaur, azaroak 25, ozenki adierazten dugu eta salatzen dugu badagoela berehalako erantzunak eskatzen dituen errealitate bat: indarkeria matxistek giza eskubideen urraketaren adierazpen larri eta iraunkorrenetako bat izaten jarraitzen dute, askotan isilduak eta ikusezinak badira ere. Testuinguru horretan, unibertsitateok indarkeria horiek desagerrarazteko eta emakume guztiak beldurrik, derrigortzerik eta diskriminaziorik gabe bizi ahal izateko gizartea eraikitzeko konpromisoa berresten dugu.

Indarkeria matxistak etengabeko praktikak dira, espazio fisikoetan eta digitaletan daudenak, eta genero-desberdintasun estrukturaletan gotortu eta emakumeen autonomia, askatasuna eta segurtasuna mugatzen duten botere-harremanetan oinarritzen direnak.

Unibertsitateak ez daude errealitate horretatik kanpo. Gure campusetan, ikasgeletan, laborategietan, ikerketa-espazioetan, egoitzetan eta ingurune digitaletan ere desberdintasunak eta indarkeriak iraunarazten dituzten jokabideak eta dinamikak errepikatzen dira. Horregatik, unibertsitate publikook ingurune seguruak, inklusiboak eta errespetuzkoak bermatzeko erantzukizuna dugu, askatasuna, duintasuna, berdintasuna eta adostasuna printzipio ukaezinak direla esateko.

Gure ustez, funtsezkoa da aurretiko indarkeria egoerak, justifikatu ditzaketen edo estali ditzaketen jokabideak egon badaudela eta desnaturalizatu egin behar ditugula jakinaraztea. Ezezko baten aurrean tematzea, sexu presioa, kontrola, jeloskortasuna, umiliazioa, mehatxuak, baimenik gabe irudi intimoak zabaltzea edo erasoak hutsaltzea ez dira maitasun-adierazpen edo gatazka txikiak. Gizarte osoaren ardura da horiek identifikatzea, zalantzan jartzea eta horien kontra jardutea.

Baimenak librea, agerikoa eta ezeztagarria izan behar du. Ezin da presioa bitarteko dela, suposatu, eskatu , ezta presioen, beldurraren, manipulazioaren eta botere

gehiegikeriaren bidez eskatu edo lortu. Ez isiltasun batek, ez aurretiko harreman batek, ez lotura afektibo batek, ez inguruabar pertsonal batek ere ez dute justifikatzen beste pertsona baten borondateari entzungor egitea.

Prebentzioa, ordea, ezin da izan alerta-seinaleak identifikatzeko gaitasun indibiduala soilik. Unibertsitateko elkarte osoaren ardura da errespetuaren kultura eraikitzea, jokabide bortitzen aurrean esku hartzea, halako egoerak jasaten dituztenei babesa erakustea eta kaltetuei entzutea, babesa, laguntza eta erantzun-bide irisgarri eta eraginkorrak bermatzea.

Erabat arbuiatzen dugu genero-indarkeriaren existentzia ukatzen dutenen, asmakuntza ideologiko gisa aurkezten dutenen, haren ondorioak minimizatzen dituztenen edo hari aurre egiteko politika publikoen zilegitasuna zalantzan jartzen dutenen diskurtsoak zabaltzea. Diskurtso horiek, eskuin muturreko sektoreek sustatuak edo zabalduak eta batzuetan beste eragile politiko batzuek onartuak, aldarrikapen feministei zilegitasuna kentzen laguntzen dute, indarkeria matxistaren aurkako adostasun soziala higatzen dute eta erasotzaileen zigorgabetasuna erraztu dezakete.

Politika publikoen etorkizuna eztabaidan dagoen testuinguru politiko honetan, gogoratu behar dugu emakumeen eskubideak ezin direla trukerako txanpon bihurtu. Konfrontazio politikoa ezin da justifikazio gisa erabili egiaztatutako errealitate bat ukatzeko, prebentziorako eta arreta emateko baliabideak desegiteko, berdintasun-mekanismoak ahultzeko edo biktimen babesa zalantzan jartzeko.

Indarkeria matxista ukatzeak ez du desagerraraziko. Minimizatzeak ez ditu emakumeak babesten. Baliabideak kentzeak ez du arazoa konpontzen. Aitzitik, praktika horiek babesgabetasuna areagotu dezakete, eta tolerantzia-mezua helaraz dezakete oinarrizko eskubideak urratzen dituzten jokabideen aurrean.

Egoera horren aurrean, unibertsitateok ezagutza zientifikoaren balioa, ikerketa zorrotzarena, pentsamendu kritikoarena eta berdintasunean oinarritutako hezkuntzarena aldarrikatzen ditugu, desinformazioari eta estereotipo sexistei aurre egiteko ezinbesteko tresna baitira.

Berdintasunaren defentsa ez da borroka alderdikoia, giza eskubideekiko, askatasunarekiko eta pertsona guztien duintasunarekiko konpromiso demokratiko bat baizik.

Unibertsitateok ezagutzen transmisiotik haratago doan funtzioa dugu: herritartasun kritikoa, askea eta demokraziarekin konprometitua eratzen laguntzen dugu. Horregatik, ezin gara egoerak axolako ez baligu bezala geratu giza eskubideen urraketen aurrean, ezta urraketa horiek justifikatzen, hutsaltzen edo berdintasunaren arloan lortutako aurrerapenak atzerarazten dituzten diskurtsoen aurrean ere.

Berdintasun unitateen, prebentzio eta jarduera protokoloen, prestakuntza espezializatuaren, ikerketaren eta politika instituzionalen bidez, lanean jarraitu behar dugu berdintasuna errealitate eraginkorra izan dadin unibertsitateko bizitzaren eremu guztietan.

Konpromiso horrek baliabide nahikoak, egitura egonkorrak, langile espezializatuak, erakundeen arteko koordinazioa eta hartutako neurrien etengabeko ebaluazioa eskatzen ditu.

Unibertsitateen Bikaintasunerako Genero Berdintasuneko Unitateen Sareak (RUIGEU) unibertsitate publikoek indarkeria matxisten prebentzioan eta gizarte bidezkoagoaren eraikuntzan duten ezinbesteko zeregina aldarrikatzen du. Eskatzen dugu berdintasun politikak lehentasun instituzional gisa mantentzea, hauteskunde zikloetatik kanpo, eta politika edo aurrekontuetan inongo atzerapausok ez konprometitzea emakumeen eskubideen babesa.

Azaroaren 25 honetan, indarkeria jasan duten emakume guztiengatik, oraindik laguntzarik eskatu ezin izan duten emakumeengatik eta askatasunean eta berdintasunean hazteko eskubidea duten belaunaldiengatik ahotsa altxatzen dugu.

Alerta-seinaleak identifikatzea prebenitzea delako. Entzutea eta laguntzea babestea delako. Berdintasunean heztea eraldatzea delako. Eta indarkeria matxisten aurrean ez dagoelako isiltasunerako, axolagabekeriarako eta negazionismorako lekurik. Unibertsitateen ikuspuntutik, ezagutza, prestakuntza eta ekintza kolektiboa ere aldaketarako tresnak dira: lortutako aurrerapenek erakusten dute posible dela errealitatea eraldatzea, baina egungo erronkek gogorarazten digute beharrezkoa dela berdintasunetik, eskubideetatik eta erantzukizun kolektibotik erantzun partekatuak eraikitzen jarraitzea.

2026ko azaroaren 25a

Behean sinatzen duten unibertsitateak Unibertsitateen Bikaintasunerako Genero Berdintasuneko Unitateen Sareko kide dira:

Alacanteko Unibertsitatea	Málagako Unibertsitatea
Alcaláko Unibertsitatea	Elx-eko Miguel Hernández Unibertsitatea
Almeríako Unibertsitatea	Mondragon Unibertsitatea
Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa, Madrilgo Unibertsitate Autonomoa, Bartzelonako Unibertsitatea, Burgoseko Unibertsitatea	Murtziako Unibertsitatea
	Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala
	Kataluniako Oberta Unibertsitatea
	Oviedoko Unibertsitatea
Cádizko Unibertsitatea	Pablo de Olavide Unibertsitatea
Kantabriako Unibertsitatea	Euskal Herriko Unibertsitatea
Madrilgo Carlos III.a Unibertsitatea	Cartagenako Unibertsitate Politeknikoa
	Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa
Gaztela-Mantxako Unibertsitatea	Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa
Madrilgo Unibertsitate Complutensea	Valentziako Unibertsitate Politeknikoa
	Pompeu Fabra Unibertsitatea
Kordobako Unibertsitatea	Nafarroako Unibertsitate Publikoa
A Coruñako Unibertsitatea	Ramon Llull Unibertsitatea
Deustuko Unibertsitatea	Rey Juan Carlos Unibertsitatea
Extremadurako Unibertsitatea	Rovira i Virgili Unibertsitatea
Gironako Unibertsitatea	Salamancako Unibertsitatea
Granadako Unibertsitatea	Santiago de Compostelako Unibertsitatea
Huelvako Unibertsitatea	Sevillako Unibertsitatea
Illes Balearseko Unibertsitatea	Valentziako Unibertsitatea
Andaluziako Nazioarteko Unibertsitatea Kataluniako Nazioarteko Unibertsitatea	Valladolideko Unibertsitatea
	Vic-eko Unibertsitatea- Kataluniako Unibertsitate Zentrala
Jaengo Unibertsitatea	Vigoko Unibertsitatea
Castellóko Jaume I Unibertsitatea	Zaragozako Unibertsitatea
La Lagunako Unibertsitatea	
Errioxako Unibertsitatea	
Las Palmaseko Unibertsitatea	
Leóngo Unibertsitatea	
Lleidako Unibertsitatea	